

# FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak enpresa batek arrakasta edukitzeko garatu beharreko ekintza garrantzitsuak dira. Hauek beharrezkoak dira balio proposamena sortu eta eskaintzeko, merkatura iristeko, diru-sarrerak lortzeko eta baita bezeroekin harremanak sortzeko ere eta negozio ereduaren arabera desberdinak dira. Funtsezko jarduerak honela sailka ditzakegu: Ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataforma edo sarea.

Ekoizpenari dagokionez, gure zerbitzuan oinarritzea eta garrantzitsuena errealitate birtualeko betaurrekoak dira, beraz, hauen diseinu eta fabrikazioari buruz hitz egingo dugu. Gure betaurrekoen diseinua gaur egungo errealitate birtualeko betaurreko gehienentzat da, baina ekitaldia zuzenean entzun ere izateko aurikular edo kaskoak izango dituzte ezarrita, bi argazki hauetan ikus dezakegun bezala:



Argazkitan ikus daitekeen bezala, aurrekaldean pantaila gordeko duen “kaxa” bat edukiko dute betaurrekoek, eta honek aurpegiari egokitzen zaion forma edukiko du. Kaxa hau mugitu ez dadin, burua inguratuko duten zinta elastikoak edukiko dituzte eta hauei lotuta, belarrietan kaskoak.

Fabrikazioaz hitz egiterako orduan, betaurreko hauetan oinarritzen den enpresa batekin hitz egingo genuke, esate baterako *Oculus VR* markarekin, bideo jokoetarako errealitate birtualeko betaurrekoak sortzen dituztelako eta nahiko arrakastatsuak direlako haien produktuen kalitatearengatik.

Arazoak konpontzearen barruan, bai bezeroen arazoak eta bai zerbitzuak izan ditzakeenak aipatuko ditugu. Hasteko, guk eskainiko dugun zerbitzuak eduki dezakeen arazo nahiko larri bat sarrera guztiak saltzen ez badira edukiko duguna da; zerbitzua ondo badoa eta jendeari gustatzen bazaio gerta liteke azkenean nahiago izatea, erosotasunagatik edo dena delakoagatik, kontzertura joan beharrean gure zerbitzua erabiltzea eta honela kontzertuetara gero eta jende gutxiago joango zen. Hau saihesteko gure zerbitzua behin sarrerak bukatuta eskaintzea erabaki genuen. Beraz, sarrera guztiak salduko ez badira ezingo dugu lanik egin. Hau

konpontzeko egin dezakeguna da sarreren %100-a salduta egotea itxaron ordeztan %75-arekin martxan jarri.

Bestalde, bezeroek izan dezaketen arazo bat da betaurrekoek huts egitea azkeneko momentuan. Kasu honetan akatsa aztertuko genuke eta pertsona kaltetuari dirua itzuliko genioke, beste kontzertu batetarako gure zerbitzuan beherapen batekin batera.

Azkenik, plataforma edo sareari buruz hitz egingo dugu. Gure zerbitzua bezeroei iristeko, gaur egun oso ohikoa den bezala, aplikazio bat sortuko dugu. Aplikazioan nor garen eta zer egiten dugun azalduko dugu eta sarrerak eta betaurrekoak erosteko aukera emango dugu, momentu horretan ditugun eta beranduago aterako ditugun kontzertu posibleekin. Aplikazioa Play Store-en eta App Store-en egongo da eskuragarri eta gure web orrian ere.